

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
<b>Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2020-12-10

Tokia: Online

Ordua: 17:00etatik 19:00etara

**Bertaratutakoak:**

Berritzegune: Loli Iglesias

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Enpresa-sarea: Izaskun Rama

Eskuz-esku: Marta Ortiz

Bidea Eginez: Estibaliz San Sebastian

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

PSE: Mihaela Jilavu

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Paula Amieva

PP: Javier Elorza

Batzordeburua: Carmen Diaz

Idazkaritza: Bego García

EDE fundazioa: Zuriñe Romeo eta Miren Barcenas

**Bertaratu ez direnak:**

EH Bildu

LAB

Gizatiar

Aisibizia

Moviendote Getxo

IEA

## **Gai-zerrenda**

- Indarkeria-protokoloak berrikusteko prozesuaren berri ematea.
- Batzordea suspertzeko prozesuaren berri ematea.
- Azaroaren 25eko kanpainaren inguruko informazioa ematea.
- Galderak eta eskaerak.

## **Aurreko akta onestea**

---

Aurreko bilerako akta, 2020ko otsailaren 20koa, onetsi da.

## **Indarkeria-protokoloaren berrikusketa**

---

EDE fundazioari hitza eman zaio indarkeria-protokoloa berrikusteko ireki den prozesua zer egoeratan dagoen azaldu dezan. Prozesu horren helburua honako hau da: emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko koordinazioaren esparruan Berdintasun Arloa egiten ari den lana aurrera eramateko eta hobetzeko prozesuari laguntza teknikoa ematea.

Otsailaren 20an egindako batzordean azaldutakoa osatze aldera, EDEko teknikariek, Zuriñek eta Mirenek, honako hau azaldu dute.

- Plangintzan aurreikusitako elkarrizketa, tailer eta lan-prozesu guztiak amaitu dira.
- Elkarrizketa eta tailer horien itzulketa egin da inplikaturako eragile guztiekin, Osakidetza eta Ertzaintzarekin izan ezik. Azken horiekin bilerak izango ditugu datorren astean.
- Taldekako topaketak aberasgarriak izan dira eta prozesuan aurrera egiteko balio izan dute. Horiei esker protokolo berri bat prestatuko da. Batez ere hasieran zeuden zailtasun batzuei dagokienez, esaterako, terminologiaren kontzeptualizazioa eta baliabideen sistematizazioa.

- Oro har, EDE Fundazioak adierazi du erakundea gogotsu dabilela koordinazioa hobetzeko eta indarkeriari aurre egin dioten emakumeak prestatzeko aurrerapausoak ematen.

## **Berdintasun Batzordea suspertzea**

---

Berdintasun zinegotziak eta Berdintasun teknikariak Equipare erakundeak prestatu duen emaitza-txostenaren berri eman dute, Berdintasun Batzordea suspertzeko parte-hartze prozesuari buruzkoa.

Batzordekideek aldez aurretik jaso dute txostena, hortaz, erronka eta gomendio nagusiak azaldu dira.

Erronkei dagokienez, elkarren kontrako ideiak eta proposamenak jaso diren arren, esan dute adostasunetara iristea dela asmoa, hartara, elkarteen beharrianak eta proposamenak gauzatu ahal izateko. Ildo horretatik, elkarteen eta berdintasuneko teknikariaren artean lantalde bat sortzea proposatu da, hitz egiteko eta hausnartzeko espazio bat izan dezaten, elkarte batzuentzat batzordeak dakartzan tentsioak eta mugak alde batera utzita. Talde horretan landutakoa batzordeko bileretara ekartzea da asmoa.

Emakumeen Etxeari dagokionez, adierazi da oso garrantzitsua dela etxeak izango duen eredia argi eta garbi diseinatuta eta aukeratuta izatea. Horretarako, martxoaren 8ko kanpaina aprobetxatuz, Emakumearen Etxearen inguruko jardunaldi batzuk egitea proposatu da. Jardunaldi horien baitan parte hartzeko tailerrak egongo dira, eta, horien bidez, Getxorentzat nahi dugun Emakumeen Etxearen eredia zehazten saiatuko gara.

## **Arazoaren 25eko kanpaina**

---

Azaroaren 25eko kanpainaren inguruko informazioa eman da.

- Urtero bezala, eraikin berezietan puntu lila jarriko da azaroaren 4tik 29ra bitartean. Bizkaia Zubia, Areetako Andres Isasin, Udaletxean, Santa Claran eta San Nikolasen.
- Adierazpen instituzionala bozeramaileen batzordeak onetsiko du hilaren 25ean bertan.
- Beldur Barik. Proiektuak hiru ekintza izango ditu eta 2020ko azken hiruhilekoan zehar egingo dira.
  - o Beldur Barik Story (Lehiaketa)  
Beldur Barik Jarrera izeneko ikus-entzunezko urriko lehiaketak izandako parte-hartzea.
  - o Beldur Barik Grafity  
Azaroan, Beldur Barik Jarrerari buruzko pieza artistikoak egitea gazteentzako espazioetan.
  - o Beldur Barik Formakuntza.  
Berdintasunera eta genero-indarkeria prebenitzera bideratutako abenduko formazioa.
- Txapak eta txartel-zorroak banatzea.
- "No solo duelen los golpes" bakarrizketa RKE. 2020-11-06  
80 pertsona konektatu ziren streaming bidez, eta bideoak 300 bisita izan ditu.
- Puntu lilaren banaketa (biniloa). Puntu lila Getxoberrirekin batera bidali da etxe guztietara. Horrekin batera gutun bat ere bidaliko da, puntu lila emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko jokabidearen sinbologia dela azalduz. Halaber, puntu lila ikusteko moduko tokiren batean jartzera animatuko da.
- Memoria Eraikiz. Muxikebarri, azaroaren 28an.  
Mugarik Gabek, Hortzmuga Teatroarekin batera, sustatutako proposamen artistiko bat da MEMORIA ERAIKIZ. Esperientzia sensorial bat bizitzera gonbidatzen gaitu modu desberdin batean. Diziplina anitzeko instalazio artistiko baten laguntzaz, errealitate desberdinak ezagutzeko proposamena egiten digu, gure protagonisten, hau da, indarkeria matxistatik bizirik atera diren mundu osoko emakumeen, ahots eta kontakizunen bidez. Hala, Guatemalako, El Salvadorreko, Kolonbiako eta Euskal Herriko emakumeen kontakizunen bidez, indarkeria matxistaren

konplexutasuna ulertuko dugu eta horren egiturazko arrazoien inguruan hausnartuko.

- Mugarik Gabek oso positibotzat jo du Getxon izandako parte-hartzea, bai bertaratzeari dagokionez, bai ondoren egindako hausnarketei dagokienez.

### **Galderak eta eskaerak.**

---

Loli Iglesiasek, Berritzeguneko ordezkariak, batzordean lehen aldiz parte hartzen duen aldia denez, Berritzeguneak berdintasunaren arloan sustatzen dituen jardueren berri eman du, hala nola koordinatzaileentzako hileroko mintegiak, baterako hezkuntza-programa eta hirugarrenentzako ikastaroak.

Batzordearen hurrengo bilera 2021eko otsailean izango da.